

# **BASKEGURREK IRAUNKORTASUNAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALDEKO APUSTUA BERRETSI DU BIOTERRAN**

**Bilbon, 2020ko urriaren 6ean.** Egungo errealitatean zentzu berezia du bioekonomiaren iraunkortasunaren eta garapenaren alde egiteak. Horiek horrela, Euskadiko Egurraren Elkarteak, Baskegur, energia berriztagarrien, kontsumo arduratsuaren eta produktu ekologikoen euskal hitzordu handira itzuliko da, hau da, urriaren 9tik 12ra Irungo Ficoban izango den Bioterrara. Zura eta basoak erabiltzearen onurak gizarteari jakinarazteko duen xedea betez, Baskegurrek aditzera emango du zein garrantzitsua den baliabide natural berriztagarrietan oinarritutako eredu bat bultzatzea. Ildo horretatik, Elkarteko zuzendari Óscar Azkaratek “Iraunkortasunerako basoen bioekonomia zirkularra Euskal Autonomia Erkidegoan” hitzaldia emango du azokan, urriaren 9an (ostirala), 13:00ean, Eraikiz Gunean, hau da, Energia berriztagarriekin, bioeraikuntzarekin eta ekonomia berdearekin zerikusia duten beste erakunde batzuekin lotutako enpresen erakusketetarako pabiloian.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Bioekonomia Zirkularraren Estrategia aurkeztu berri du, eta Azkaratek plan hori zertan oinarritzen den aztertuko du. Horrez gain, zura oinarri duten produktu berriak lortzea helburu duten lan-ildo eta proiektu nagusiak zehaztuko ditu, petrolioaren beste deribatu batzuk ordezkatzeko egokiak direnak. Laburbilduz, Euskadiko basogintza (egurra) sektorearen orainaldia eta etorkizuna aztertuko ditu. Izan ere, Baskegurrek bioekonomiarekin lotutako zenbait proiektu antolatu ditu Basotek programaren bidez.

Aurreko edizioetan bezala, Baskegurrek stand bat izango du, elkaratearen eta Euskadiko basogintzaren jarduera biltzen duten bideoak proiektatzeko. Haurrek joko edo koaderno bat eskatu ahal izango dute basoen eta zuraren munduarekin zerikusia duten motiboak koloreztatzeko.

## **BIOTERRA 2020KO OSASUN-NEURRIAK**

Bioterra, garapen iraunkorrarekin eta kontsumo arduratsuekin kontzientziatutako profesionalen eta erabiltzaileen hitzordu handia, atzeratu egin behar izan zen ekainetik urrira, osasun-egoera zela-eta. “17 urte klima-aldaketaren aurkako borrokan arreta jarritz” lelopean, 80 erakusketari elkartuko dira Ficoban (Irun), segurtasun-protokolo zorrotz baten pean. Izan ere, aurten, Bioterrak lau egun iraungo du, eta ez hiru, kontu berria azokaren ibilbidean, erakusketarien eta bisitarien artean behar den tartea ziurtatzeko eta Covid-19aren aurreko prebentzioa bermatzeko. Besteak beste, korridore zabalagoak prestatu dira, 8 metro artekoak.

*Baskegurrek Euskadiko basogintzaren eta zuraren industriaren sektoreko hainbat elkarte hartzen ditu barnean: jabeak, basoen ustiaketa eta lanak, lehen eta bigarren eraldaketa, edota paper-orea eta bioenergia.*

2

Baskegurren prentsa-kabinetea  
**Cristina González Barrios**. Tel.: 687 47 50 16

**Sonsoles Zubeldia López** Tel.: 699 01 75 38